



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 5a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00032. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Nafarroaren autogobernuarekiko konpromisoa, eta trafikoa eta bide-segurtasuna eskumen historikoa dela aitortzen baitu. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00170. Galdera, Nafarroan minbizia artatzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-23/PES-00176. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00177. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00178. Galdera, AUNako proiektu pilotuarekin sortutako kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-23/PES-00179. Galdera, AUNako proiektuaren baitan errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonei zuzendutako proiektu pilotuko hautaprosesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-23/PES-00180. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 31ko agerraldian egindako adierazpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-23/PES-00200. Galdera, Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-23/PES-00201. Galdera, Tuterako Ospitaleko telebista-zerbitzu doakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- 11-23/PES-00202. Galdera, enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-23/PES-00204. Galdera, ehizari buruzko lege-proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00032. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Nafarroaren autogobernuarekiko konpromisoa, eta trafikoa eta bide-segurtasuna eskumen historikoa dela aitortzen baitu

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Nafarroaren autogobernuarekiko konpromisoa, eta trafikoa eta bide-segurtasuna eskumen historikoa dela aitortzen baitu.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Foru Araubideko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Foru Araubideko Batzordean presaz eztabaidatu eta bozkatzeko, martxoaren 6an, asteazkenarekin:

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitateari Estatuko Administrazioak trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan dituen zenbait eginkizun eta zerbitzu eskualdatzeari buruzko apirilaren 4ko 252/2023 Errege-dekretua deuseztatzen duen

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Laugarren Salaren 258/2024 zenbakiko epaia ikusita, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hauek onestea proposatzen du:

1. Nafarroako Parlamentua, Legebiltzarreko zerbitzu juridikoek aldeztutako interpretazioarekiko koherentziari heldurik, ez dago ados Auzitegi Gorenaren 2024ko otsailaren 15eko epaiarekin, aurka egiten dielako Foru Komunitatearen eskubide historikoei, zeinek Konstituzioaren eta LORAFNaren babesa baitute, bai eta Auzitegi Gorenaren beraren jurisprudentziak emandako babesa ere. Ondorioz, trafikoko eta ibilgailu motordunen zirkulazioko eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroari eskualdatzeko, egoki deritza Errege Dekretuaren bideari.

2. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du ezen, Transferentzien Batzordearen aho bateko erabakia beterik, 2023ko martxoaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak posible diren modu guztiak azter ditzan ebazpen judizial horrek eragindako egoera leheneratzeko, eta trafikoaren nahiz ibilgailu motordunen arloan Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, hain zuzen erabaki horretan zehaztutako moduaren arabera.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroaren autogobernuarekiko konpromisoa, eta trafiko nahiz bide-segurtasunaren gaineko eskumena Nafarroari LORAFNan aitortzen zaion eskumena dela eta Konstituzioak eskubide historiko bezala babestua dela jotzen du.

Iruñean, 2024ko otsailaren 29an

Eledunak: Pablo Azcona Molinet, Laura Aznal Sagasti, Ramón Alzórriz Goñi, Carlos Guzmán Pérez

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00170. Galdera, Nafarroan minbizia artatzeko neurriei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroan minbizia artatzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00170) Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategikoari buruz, zehazki, honako hau jakiteko: “2022ko otsailean, Nafarroako Parlamentuak Navarra Sumaren mozio bat onetsi zuen, berriz ere nabarmentzen zituena 2019ko abenduan onetsitako Navarra Sumaren beste mozio batek aipatzen zituen puntuak, Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutzeari buruzkoak”. Hori dela eta, puntu horietako bakoitzaren egungo garapen-maila zein den jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du berreskura dezan bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programetan azken bi urteetan izandako atzerapena, gehienez ere sei hilabeteko epean.

Kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko (PDPCCR).

Covid-19aren ondoriozko pandemiak urtebete zehatzeko atzerapena eragin zuen PDPCCR programan.

Programaren laugarren buelta abian jarri zen 2020ko urtarrilean, eta, urte bereko martxoan bertan behera uztearen ondorioz, programaren xede zen biztanleria ia guztiak atzerapen hori jasan zuen (hasierako 168.260 pertsonetatik 149.959ek). 2021eko martxoan Programa berriz abian jarri zenetik, pandemia aurreko laneko gehieneko abiadura berreskuratzea lortu zen, baina ez zen posible izan 2021ean geratzen ziren bederatzi hilabeteetan galdutako denbora guztia (urtebete) berreskuratzea.

Laugarren buelta 2022ko abenduan amaitu zen, eta 2023ko urtarrilean programaren bosgarren buelta jarri zen abian. Buelta horrek jadanik fasean barne hartzen ditu xede diren biztanle guztiak, hau da, baheketako azken esploraziotik bi urtera eta, beraz, atzerapenik gabe.

Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa (PDPCM).

Covid-19aren pandemiak aurrez jadanik zegoen arazo bat areagotu zuen: mamografiak irakurtzeko erradiologo adituen defizita.

PDPCMren hamabosgarren buelta, pandemia hasi zenean abian zena, 2021eko ekainean amaitu zen, hasieran planteatutako epea baino hamar hilabete beranduago. Hamaseigarren bueltan, 2021eko ekainean bertan hasitakoan, ez da lortu hasiera batean planteatutako abiaduran lan egitea, eta aurreikusten da 2024ko otsailean amaitzea, hau da, zortzi hilabeteko atzerapenarekin. Azpimarratu behar da ezen, 2023ko apiriletik, programako erradiologoetako bat laneko bajaran dagoela, eta ez da aurreikusten laster itzuliko denik.

Bitarte horretan zenbait neurri hartu dira (laneko agendak optimizatzea, hitzordu espezifikoak ematea parte hartu ohi ez duten emakumeendako, txostenak irakurtzea eta abar), eta arrazoiak badaude sinesteko hurrengo buelta mamografiaren baheketei buruz indarrean diren kalitate gidek

aholkatutako epeen barruan egiten ahalko dela (onargarria: 30 hilabete; ahal dela: 24 hilabete).

2- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du tresnak eta baliabideak eskain ditzan Nafarroan minbizia dutenei arreta integratu eta integrala bermatzeko. Nafarroako Parlamentua. Sarrera erregistroa: 384-01-27 ordua 14:07 10-22/MOC00008

Minbiziari aurre egiteko egungo estrategiaren bigarren domeinuak antolaketa eredu berri bat sortzea sustatu du, horizontala eta diziplina anitzekoa, Kudeaketa Kliniko Multidiziplinarreko Unitate Funtzionala (UFMD) minbizirako arreta emateko egitura espezializatuekin, paziente onkologikoaren arreta integrala bermatzeko, jarduera prozesukako kudeaketan ardaztuta, arreta pertsonalizatuta eta baliabideen eraginkortasuna hobetuta. Kudeaketa eredu horri esker, asistentziaren emaitzak eta kalitatea monitorizatzen dira, eta aldian-aldian berriz ebaluatu eta hobetzen ahal da.

Diziplina anitzeko unitate horiek askotariko espezialitate, estamentu profesional eta asistentzia mailek emandako baliabide multzo bat osatzen dute funtzionalki. Koordinatuta jarduten dute, minbiziari arreta emateko prozesu kliniko integratua eta arreta zirkuitua jorratzeko, paziente onkologikoaren beharrak artatzen dituen arreta sistema integral bat garatzeko. Antolaketari dagokionez, UFMDek koordinatzaile kliniko bat, kasuen kudeatzaile bat (kasuak kudeatzen dituen erizaintzako profila) eta Zuzendaritza Batzorde bat dituzte. Zuzendaritza Batzordeak kudeaketa klinikoko, prestakuntzako eta ikerketako eginkizunak ditu. Era berean, aginte-koadro klinikoa duen informazio-sistema bat ere badute. Ospitaleko zerbitzu klinikoak integratzeaz gain, Zuzendaritza Batzordean Oinarritako Osasun Laguntzako kideak sartzen dira, susmo diagnostikoan eta jarraipenean duten eginkizunagatik, eta Osasun Publikoak, detekzio goiztiarreko programen ondorioz.

UFMDen irismena Nafarroako Foru Erkidego osoan minbizia diagnostikatu zaien pazienteen arreta da (Iruñea, Lizarra eta Tuterako eremuak). Noizean behin, Foru Komunitatetik kanpoko pazienteak ere artatzen dituzte. Nafarroako Osasun Sistemako paziente guztien arreta onkologikoa homogeneizatzeko neurriak ezarri dira, arreta ematen den lekua edozein dela ere.

Tumore diagnostikoa duten kasu guztiak eta berriz gaixotzeak UFMDei saioetan komentatzen dira, telekonferentzia sistemen bidez, Tuterako Reina Sofia ospitalearekin eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalearekin komunikatzeko.

Gaur egun, TIK martxan daude kolon eta ondesteko minbiziaren UFMDei (Koordinatzailea: Suarez doktorea, NOU Kirurgia Orokorreko Zerbitzua), minbizi ginekologikoa (Koordinatzailea: Muruzabal doktorea, NOU Ginekologia Zerbitzua) eta 2020tik birrikako minbiziarena (Koordinatzailea: Guelbenzu doktorea, NOU Toraxeko Kirurgiako Zerbitzua). Gainera, haurren eta gazteen minbiziaren arreta hobetzeko Estrategia Nazionalak 2018an egindako gomendioak kontuan hartuta, 2021az geroztik, haurren eta gazteen minbiziaren arretarako UFMDei ere eratu da (Koordinatzailea: Sagaseta doktorea, NOU Pediatria Zerbitzua). Nafarroako Osasun Sistemak Onko-Hematologia Pediatrikoko Unitate bakarra du, Nafarroako Unibertsitate Ospitalean kokatua, eta 16 urtetik beherako haurren minbizian diagnostikatutako kasu guztien diagnosi eta terapia erabakiak hartzen dituen UFMD bakarra ere bai.

Gaur egun, lehen mailako hainbat tumoretarako beste UFMD batzuk garatzen jarraitzeko prozesuan gaude. Abian jartzen den artean, Minbizi Batzorde hauek daude indarrean Euskal Autonomia Erkidego osorako:

- Hestegorri eta Urdaileko Minbiziaren Batzordea
- Minbizi Hepatobiliopankreatikoaren Batzordea
- Minbizi Hereditarioaren Batzordea
- Melanomaren Batzordea
- Neuroonkologiako Batzordea
- Bularreko Patologiaren Batzordea
- Gizonezkoaren Gernu eta Ugaltze Aparatuko Tumoreen Batzordea
- ORLko Tumoreen Batzordea
- Aurpegi-masailetakako Tumoreen (AMK) Batzordea
- Tumore Ginekologikoen Batzordea
- Onkologia Pediatrikoko Tumoreen Batzordea
- Hezurretako eta Zati Bigunetako Tumoreen Batzordea
- Batzorde Onko-Endokrinoa

Hirugarren domeinua Minbiziaren Bereizmen Handiko eta Pertsonalizazioko Programa bat sortzean oinarritu da. Programa horren ardatza minbiziaren zirkuitu diagnostiko azkarrak optimizatzea, protokoloak eta plan terapeutikoak aplikatzea, kasuak kudeatzeko metodologia nabarmentzea, kasuak kudeatzen dituzten eta

lotura egiten duten erizainen inplikazio nagusiarekin, bai eta jarraipen berrikuspenen aldizkakotasuna behar bezala betetzen dela bermatzea ere, Arreta Espezializatuaren eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren arteko lan koordinatua eginda. Adibide gisa, 2020tik, "Bularreko minbizia duten pazienteen protokoloa" abian dago, eta jarraipena egiten zaie Oinarrizko Osasun Laguntzan duela hamar urte baino gehiago bularreko minbizia diagnostikatu zaien paziente luzeei. Oinarrizko Osasun Laguntzatik mamografiaren eskaera protokolizatu da. Pazienteak berriro ere onkologoak ikusi behar badu gorabeheraren bat izanez gero, pazienteak lehentasunezko hitzordua izanen du harekin, eta, gainera, onkologiako zerbitzuekin harremanetan jarri ahal izanen da, zirkuitu horren ondorioz sortutako aurrez aurrekoak ez diren interkontsulten bidez.

Zirkuitua 2020ko otsailaren 3tik aurrera hasi zen aplikatzen. Aldez aurretik, protokoloa 58 Oinarrizko Osasun Eremuetara zabaldu zen.

Ospitaleko arretatik beste prozesu onkologiko batzuetarako alta protokoloak lantzea aurreikusita dago. Koloneko minbizia duten eta Oinarrizko Osasun Laguntzatik kontrolatzen ahal diren pazienteen jarraipenerako protokoloa lantzen hastea proposatzen da.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ezar dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean.

Koloneko, ginekologiako, biriketako eta haurren zein nerabeen minbizirako diziplina anitzeko unitateek arreta jarraitua eta irisgarria ematen dute kasuak kudeatzen dituzten sendagileen bidez, lan orduetan.

Onkologia erradioterapikoaren eta medikoaren zerbitzuek goizez zein arratsaldean ematen diete arreta jarraitu espezifikoa onkologiako pazienteei eguneko ospitalearen bitartez eta ospitalizazioan zehar. Jaiegunetan espezialistek arreta ematen diote ospitaleratutako pazienteari. Gainerakoetan, ospitaleko zaintza medikoa eta kirurgikoa egiten duten mediku espezialistek ematen dute arreta. Multzo horren osieran onkologiako espezialistak ere sartzen dira. Gaixo horiek arreta onkologiko espezifikoa zein ez espezifikoa behar izaten ahal dute.

Aurrekontu baliabideen arabera ezartzen ahal da onkologiako ezohiko arreta jarraitu espezifikoa.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan minbizi hereditarioa duten pertsonen arreta goiztiarreko progra-

ma bat prestatu eta ezar dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Minbizi hereditarioako eta familia minbizirako arreta NOUn ematen da duela urte batzuk, zerbitzu zehatz batetik deszentralizatuta.

Berariaz artatzen da minbizi hereditarioa Genetika Zerbitzuan, aholku genetikoaren kontsultarekin, eta minbizi hereditarioaren eta familia minbiziaren kontsulta Onkologia Medikoaren Zerbitzuan bertan egiten da. Baheketa metodoen bidezko aldizkako jarraipen klinikoa egiten da minbizi hereditarioaren kontsultatik eta espezialisten kontsultetatik, adostutako dokumentuen arabera.

• NOUko Genetika Zerbitzuko minbizi hereditarioaren zerbitzuak 1990. urtearen hasieran jarri ziren abian.

Oinarrizko osasun laguntzako eta ospitaleko arretako pazienteak hartzen dituzte, eta zenbait eginkizun dituzte: eskaeraren baheketa egiten dute lehenesteko, historia genetikoa (kasua aztertzea eta familia suszeptibilitatea egiaztatzea), aholkularitzako aurretiko kontsulta, egin beharreko azterketa genetikoa zehaztea, diagnostiko genetiko egitea, administrazio erregistroa, familia historia betetzea (Progeny), azterketa genetikoaren emaitzak jakinaraztea eta interpretatzea (test osteko aholkularitza), bai eta inplikazio indibidualak eta familiarrak eta azterketa genetiko egitea ere. Pazienteen jarraipena, beharrezko diagnostiko baheketen bidez, dagokion zerbitzuarekin adostu da.

Gaur egun, honako hauek laguntzen dute jarraipena planifikatzen:

Onkologia Zerbitzua

– Bularreko/obulutegiko minbizi hereditarioaren sindromea

– Li-Fraumeni sindromea helduetan

Digestio Zerbitzua:

– Koloneko minbizi ez-poliposikoaren sindromea edo Lynch-en sindromea.

– Poliposi hereditarioa

– Pankreako minbizi familiarra

– Urdaileko minbizi familiarra

Onkologia Pediatrikoaren Atala:

– Li-Fraumeni sindrome pediatrikoa

– Erretinoblastoma

Urologia Zerbitzua:

– Prostatako minbizia

– Giltzurrunetako minbizia (HLRCC, VHL, etab.)

Dermatologia Zerbitzua:

– Melanoma

– Neurofibromatosia 1

Endokrinologia Zerbitzua:

– Paraganglioma hereditarioa,

– Sindrome endokrino anizkoitza

- 2014ko irailean, minbizi hereditarioari buruzko aholkularitza kontsulta bat jarri zen abian, Onkologia Medikoen Zerbitzuko, baina zerbitzutik kanpo, baloratu beharreko paziente motaren arabera: paziente onkologikoak eta mutazio genetikoa duten paziente osasuntsuak – arrisku hereditario handia.

Kontsulta horretan, Oinarrizko Osasun Laguntzak, emakumeari laguntzeko zentroek (CaSSyR) eta hainbat espezialitate medikok bidalitako pazienteen eta senideen arriskua baloratzen da; espezialitate horien artean honako hauek daude: Onkologia Medikoa, Kirurgia Orokorra, Ginekologia, Onkologia Erradioterapikoa, Urologia, etab. Aurretiko joera genetikoen sindromeren bat detektatzeko arriskuaren ebaluazioa egiten da, eta ondoren arrisku handikotzat jotako irizpideak betez gero azterketa genetikoa izanen lituzkeen ondorioak azaltzen dira. Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Genetika Zerbitzura bidaltzen dira pazienteak, dagokion azterketa genetikoa egiteko. Era berean, kontsultan egiten dira jarraipenak, eta dagozkion proba osagarriak eskatu eta interpretatzeaz arduratzen da, dagokion kadentziarekin, bai mutazio genetikoa duten eramaile osasuntsuei, bai paziente onkologikoei dagokienez, bai eta detektatutako mutaziorik gabeko arrisku handiko pazienteren bati dagokionez ere (adibidez, arrisku handiko irizpideak betetzen dituen familia agregazioa). Minbizi Hereditarioaren Unitateko (UCH) Batzordea egiten da– Bularreko eta Obulutegiko minbiziaren lantaldea egiten da hilean behin (hila-bete bakoitzeko lehenengo ostiralean). Bertan, zenbait kasu kliniko aurkezten dira eta irizpide terapeutikoa erabakitzen da.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerbitzuen zorroa ezar dezan bermatze aldera minbizia dutenendako medikuntza pertsonalizatua abiarazten dela, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Medikuntza pertsonalizatua pazientearengan jartzen du arreta, eta ez soilik patologian. Banakoen ezaugarrien artean daude geneak, osasun egoera, bizimodua, adina, sexua eta inguruabar

pertsonalak. Hori dela-eta, alternatiba terapeutikoen askotariko efizientzia izaten ahal dute pazientearen arabera. Horregatik guztiagatik, berebizikoa da erantzun terapeutiko desberdinak baldintzatzen dituzten ezaugarriak ezagutzea eta beroriek onuradun izaten ahal diren pertsonengan aplikatzea.

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren kanpoko webgunean argitaratuta dago eskaintza asistentziala, eta berorren barruan zehaztapen genetikoa jasotzen dira organoetan eta sistemetan antolatuta.

<https://hun.navarra.es/eu/web/hun-medicina-personalizada-de-precision/oferta-asistencial>

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zorro osagarrian sar ditzan tratamendu onkologikoen ondoriozko aho-hortzetako arreta eta prestazioak, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Gaur egun, tratamendu onkologikoen ondoriozko aho-hortzetako arreta eta prestazioak ez daude zorro orokorrean jasota, baina bidean da haurren minbiziaren kasuan prestazio hori barne hartuko duen foru agindu bat.

Prestazio osagarri gisa jasotzea planteatu denez Nafarroa alde aurreko betekizun hauek bete behar dira:

- Aurrekontu egonkortasunaren irizpideak bete-tearen markoan ziurtatzea alde aurretik finantza nahikotasuna bermatzen ahal dela.

- Erabakiaren berri ematea Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluari, argudioak adierazita eta prestazio berria sartu baino lehen.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arautu dezan dieta eta egonaldirako prestazioen igoera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak bidalita Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleetan kontsulta jaso edo ospitaleratu behar duten haur nafarren bi guraso edo seniderendako, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

419E/2018 Foru Agindua, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez laguntzak emateko araubide bat ezartzen baita, joan-etorrietarako, ostatu hartzeko eta mantenturako gastuetarako, osasun laguntza jasotzearen Nafarroako Foru Komunitatetik kanpora bideratzen diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko pazienteentzat.

Zehazki, aipatutako arauaren 1. artikulua ezartzen du Foru Aginduan ezarritako laguntzak jasotzeko eskubidea izanen dutela Osasunbidea-

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren norbanakoaren osasun txartela izanik, osasun laguntza hartzera Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko zentro batera bideratzen diren pazienteek honako kasu hauetan:

a) Osasun arreta araubide anbulatorioan jasotzeko bideratzen direnak.

b) Osasun arreta ospitaleratze araubidean jasotzeko bideratzen direnak.

c) Esaten zaienean osasun zentro batetik hurbil egon behar dutela, egoki den tratamendua eta/edo esku-hartzea jasotzeko zain.

Foru Agindu horrek ordeztu egin zuen 212/2001 Foru Dekretua. Arau berrian administrazio izapidea sinplifikatu nahi zen, gardentasuna hobetze aldera, pazienteek eta laguntzaileek argi eta garbi ezagutu ahal izateko finantzaketan hizpide diren zenbaterakoak. Laguntzailearen kontzeptua zabaldu zen; izan ere, aldeztu aurretik laguntzaile bakarrari baino ezin zitzaion ordaindu 14 urtetik beherako adingabeen eta premia klinikoki justifikatzen zuen txostena zuten adinekoen kasuan Gaur egun, laguntzaile bakarrarendako laguntzari eus-

ten zaio, baina eskubide hori ez da pazientearen adinaren edo egoeraren araberakoa, eta, beraz, laguntzaile batek beti du hizpide den laguntza jasotzeko eskubidea.

Prestazio horien gehikuntza aurrekontu erabilgarritasunak zehaztuko du.

8.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zaintzaileari laguntza emateko programa bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Osasun Departamentuak finantzatu eta Minbi-ziaren aurkako Espainiako Elkarteak garatzen dituen ekintzen artean dago paziente eta senideentzako arreta psikologikoa. Egindako azterketen arabera, paziente onkologikoen % 35ek, gutxi gorabehera, tratamendu profesionala behar duen afekzio psikologikoren bat dute. Hori erabakigarria da pazientearen eta haren familiaren eta ingurune hurbilaren egoera emozionalerako, eta, beraz, prozesuan parte hartzen duten eragile guztien zaintza eta arreta barne hartzen dituen ikuspegi integrala behar du arretak.

2023ko irailera arte, jarduera hau egin da:

2023	Guztira
Pazienteak	961
Senideak	361
GUZTIRA	1322
Gizonak	443 (% 33,5)
Emakumeak	879 (% 66,5)
TRIAJE EMOZIONALA	
Kontaktatutako pazienteak	1862 paziente
Psikoonkologiako Zerbitzura bideratutako pazienteak	132 paziente

Horrez gain, taldeko terapiak ere egin ziren gaixotasunaren askotariko faseetan bizi kalitatea murrizten dieten premia emozionalak, erlazionalak eta funtzionalak dituzten pazienteendako eta beraien familiendako. Tailer formatuko jarduerak antolatu dira. Erantzuna emateko nola aurrez aurre joaterik ez duten pertsonen egoerei hala online egiteko bitartekorik ez duten pertsonen

egoerei, saio presentzialak eta Webex tresnaren bidezkoak egiten dira bertaratzea errazteko.

Oro har, ordu eta erdiko bost edo sei saio egiten dira astean. Hasierako banakako elkarrizketa egiten da pazienteari nahiz familiari gehien egokitu zaion tailerraren egokitasuna ebaluatzeko.

2023an irailera arte egin den jarduera:

2023	Guztira
Mindfulness	32 paziente
Berriro gaixotzeko beldurra	10 paziente
Antsietatearekin moldatzea	18 paziente
Elikadura osasungarria onkologiako pazienteendako	44 paziente

9.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du minbizia duten gaixoei arreta integratua emateko prozesuen ebaluazio integralerako sistema bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez sei hilabeteko epean.

2. puntuan adierazitakoaz gain, gure Komunitatean Minbizia prebenitzeko eta arreta emateko estrategia bat ere badago, eta berorren arduradunek gauzatzeko dituzte eginkizun horiek.

Minbizirako arreta integratuko prozesuen hari-
ra, badakigu bularreko minbiziaren bizirauleei
jarraipena egiteko protokolo bat dagoela, eta gaur
egun jadanik ezarrita dago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua
betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez
Cunchillos

11-23/PES-00176. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artiku-
luan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
Domingo González Martínez jaunak zahar-etxee-
tan osasun-laguntzaren arloan atzemandako ir-
regulartasunei eta gabeziei buruz egindako galdera-
ren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera
2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamen-
tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru
parlamentari Domingo González Martínez jaunak
egoitza zentroetako irregulartasun eta gabeziei
buruzko informazioa eskatu du (11-23/PES-
00176). Hona Nafarroako Gobernu Osasun
kontseilariak ematen duen informazioa:

Osasun Departamentuak ez du eskumenik
egoitza zentroetan ikuskapena egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua
betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez
Cunchillos

11-23/PES-00177. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-23/PES-00177 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Lehenik eta behin, gogorarazi behar da ezen, abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretua aldatzen duen apirilaren 5eko 38/2023 Foru Dekretua indarrean sartu zenetik, eta berorren 46.3 artikulua aplikatuz, Gardentasunaren Atarian argitaratu dela Ikuskaritzako urteko planean jasotako eta 2023ko maiatzaren 8az geroztik egindako ikuskapen arrunt guztien ondorioei buruzko txostena. Hiru hilean behin argitaratzen da, eta, beraz, 2023ko maiatza eta iraila bitartean egindakoak eta jakinarazitakoak daude eskura.

Bigarrenik, parlamentariak planteatutako galderaren harira, 2022. urtean zehar, gorabehera nabarmenak hauteman dira, eta, ondorioz, zehapen espedientea hasteko proposamena egin da honako zentro hauetan:

- Virgen de la Nieva adinekoentzako etxebizitza laguntzaduna (Azkoien): Zerbitzuari ohiko ikuskapena egin ostean, zehapen espedientea irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, hauxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Laguntza gutxiko zerbitzua eman zitzaien mendekotasun larria eta mendekotasun handia zuten pertsonen.

- Ez zen baloraziorik egin artatutako pertsonen inguruan, Arretarako plan indibidualizatua/ Erabiltzaileari arreta emateko plan integrala, parte hartzeko bilerak erabiltzaileekin/familiekin.

- Ez zen zerbitzua emateari buruzko kontratarik izenpetu erabiltzaileekin.

- Baimendutakoa ez den beste zerbitzu gisa eman zen aditzera.

12.001 euroko zehapena jarri zen, eta interes-dunak ordaindu zuen. Aldi berean, zerbitzua emateko baimena errebotatu zen; horrenbestez, gaur egun zerbitzu horrek ez du funtzionatzeko baimekin eta zeukan erregistroko idazpena deuseztatu egin da.

– Alpa, adinekoentzako eguneko zentroa (Uharte): Zerbitzuari ohiko ikuskapena egin ostean, zehapen espedientea irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, hauxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Langileen ratioak ez ziren bete zentrorra egindako ikuskapeneko azken hiru bisitetan.

- Arretarako plan indibidualizatua/Erabiltzaileari arreta emateko plan integralean ez ziren sartu erabiltzailetzat jo ahal izateko ezarritako gutxieneko baldintzak, behin aurreko ikuskapen bisitan zuzentzeko ezarritako epea igaro ondoren. Bidenabar, egiaztatu da erabiltzaileari esleitutako erreferentziazko langilerik ez dagoela eta horren edukiaren berri ez zaiela idatziz ematen, ez familliei, ez erabiltzaileei.

- Zentroan menu birrinduak ematen jarraitu da nahiz eta ikuskapeneko aurreko bisitan ohartarazi.

12.001 euroko zehapena jarri zen, eta interes-dunak ordaindu zuen. Aurten oraindik ez da ikuskapeneko urteko bisita egin.

– Adingabeendako neurri judizialen Arangurango zentroa: Zentroko adingabeetako batek jarritako salaketa jaso ondoren, espedientea irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, hauxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza

espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Hezitzaile baten jarduketa desegokiak baimendu ziren, gutxienez bitan eta egoiliar berarekin, eta neurri zuzentzaile edota erreparazio neurririk ez zen hartu (langileari diziplinazko espedientea hastea).

12.000 euroko zehapena jarri zen, eta erakundeak ordaindu zuen.

– Amavir Oblatas adinekoendako egoitza zentroa (Iruña): Zentroko erabiltzaile baten senide batek jarritako salaketa jaso ondoren, espedientea irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, hauxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Ez ziren egokiro ikertu gerokultore batek erabiltzaileari egun zehatz batean emandako arretaren ondorioz jarritako salaketaren egitateak.

- Egoiliarren alabari hurrengo egunean ez zitzaion jakinarazi intzidente bat egon zela.

- Zuzendariak uko egin dio gertakariaren txostena entregatzeari, nahiz eta egitateak ikusita egoiliarren alabak eskatu.

- Egoiliarrek adierazitakoaren arabera eta ikuskapeneko bisitan egiztatu zenez, gerokultoreek atzerapena izan zuten laguntza emateko orduan.

- Azaldutako egitateengatik hasitako zehapen prozedura ez zen egokiro gauzatu inplikaturako gerokultoreekin.

Zehapen espedientea hasi zen baina iraungi egin zen; hala ere, egitateak preskribatu ez direnez, berriz hasi da eta izapidetzen ari da.

– Zangozako San Vicente Paul, udalaren zahar etxea. Zentroko erabiltzaile baten senide batek jarritako salaketa jaso ondoren, espedientea irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, ahuxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Ez zen bete Erortzeak kudeatzeko eta erortzeko arriskueterako protokoloa egoitza zentroan.

Bidenabar, aipatu den Foru Legearen 85. artikuluko a) letran tipifikaturako arau-hauste bat ere hauteman zen, hauxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei legez aitorturiko eskubide hauek urratzea: zerbitzuko barne erregelamendua eskura izan eta ezagutzea, kexak eta iradokizunak jaso eta ebazteko sistema bat egotea, erabiltzaileari zerbitzuaren prezioa eta ordainetan eman behar duena jakinaraztea eta erabiltzailearentzat garrantzitsuak diren objektu pertsonalak edukitzea”. Honako hauek izan ziren arau hori hautsi izanaren arrazoi egiaztatuak:

- Zentroak ez zuen behar bezalako kudeaketa egin kexak eta erreklamazioak tratatzeko orduan, eta dagoen protokoloa ez zuen bete senideari erantzunik eman ez ziolako.

Arau-hauste astunagatik 12.001 euroko zehapena jarri zitzaion, eta 300 euroko beste bat arau-hauste arinagatik. Biak ordaindu ziren.

Azkenik, 2023. urtean zehar (urrira arte), gora-behera nabarmenak hauteman dira, eta, ondorioz, zehapen espedientea hasteko proposamena egin da honako zentro hauetan:

– Nuestra Señora de Gracia adinekoen egoitza (Viana) Zerbitzuari ohiko ikuskapena egin ostean, zehapen espedientea irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, hauxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”. Honako hauek izan dira arrazoiak:

- Urratu egin zen erabiltzaileak duintasunerako eta intimitaterako duen eskubidea alderdi eta egoera bitan: batetik, beste gela batzuetara igarotzeko gelei dagokienez, eta, bestetik, komunera joateko orduan ere eskubideen urraketa hauteman zen.

Zehapen espedientea hasi da eta une honetan izapidetzen ari da.

– Amavir Ibañeta adinekoendako egoitza (Erro): Zerbitzuari ohiko ikuskapena egin zitzaion, eta zehapen espedientea irekitzea proposatu zen Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko m) letran tipifikaturako arau-hauste astuna egin zelako, zehazki, hauxe: “Zerbitzuek jarduteko edo homologaturik egoteko bete behar dituzten baldintzak eta kalitate estandarrak erregulatzen dituen araudia ez betetzea”. Hain zuzen ere, ez ziren bete zentroko Zuzendaritzak bete beharreko betekizunak. Betekizun eta kalitate estandar horiek jasota daude II. Eranskinen A apartatuan (Egoitza zerbi-

tzuak), honako dekretu honetan: 92/2020 Foru Dekretua, arautzen dituen, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu ambulatorioen funtzionamendua adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte-inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimenen, aurretiatzko komunikazioen eta homologazioen araubidea 5. puntuko d) apartatuan jasota dago, zentroko Zuzendaritzak bete beharreko betekizunen artean, postu hori betetzen duenak unibertsitateko titulazioa izan beharko duela; kasu honetan, ez da betetzen.

Zehapen espedientea hasi da eta une honetan izapidetzen ari da.

– Amavir Argaray adinekoendako egoitza zentroa (Iruña): Zentroko erabiltzaile baten senide batek jarritako salaketa jaso ondoren, espediente irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, haxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Gluzemia kontrolak ez ziren egin 2023ko abuztuaren 5etik urte bereko abuztuaren 26ra bitarte, eta egiteko derrigortasuna dago nola Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Oinarrizko Osasun Laguntzaren aldetik hala zentroaren beraren medikuntza ataletik.

Zehapen espediente irekitzeke dago oraindik.

– Domus VI adinekoendako egoitza zentroa (Iruña): Zentroko erabiltzaile baten senide batek jarritako salaketa jaso ondoren, espediente irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, haxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Erabiltzaile baten erorketa ez zen behar bezala unean bertan erregistratu, eta erregistroak

aipaturakoez bestelako egun batzuetan egin ziren, oker, kontraesanekin eta hutsekin.

- Ez ziren behar bezala erregistratu egoiarrari erori ostean egindako balorazioa, hurrengo egunetako jarraipena eta eboluzioa eta Larrialdietako Zerbitzura bideratzeko balorazio medikoa.

- Familiari ez zitzaion senidea erori izanaren berri eman, ezta senidearen eboluzioaren eta egoeraren berri ere, eta ez zitzaion jakinarazi Larrialdietako Zerbitzura bideratu zutenik.

12.000 euroko zehapena jarri zen, eta erakundeak ordaindu zuen.

– Amavir Valle de Egüés egoitza zentroa (Eguesibar): Zentroko langile ohi batek jarritako salaketa jaso ondoren, espediente irekitzea proposatu zen 15/2006 Foru Legearen 86. artikuluko e) letra ez betetzeagatik, haxe: “Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena”; izan ere, zentroa ez zen behar bezala kudeatu honako alderdi egiaztatu hauei dagokienez:

- Zaintzaileen intzidentzien erregistroko koardernoa eta profesional teknikoaren bilakaera klinikoan (erizaintza) ez da jasotzen idazketa bat, non zehaztasunez eta esplizituki transkribatzen diren salatutako eguneko arratsaldeko txandan gertatutako gertakariak eta txanda horretan neurtutako parametro klinikoak, erabiltzaileari buruzkoak.

Zehapen espediente hasi da eta une honetan izapidetzen ari da.

Azkenik, adierazi behar da urtean zehar zehapena jaso duten zentro guztiei berrikuspene eginen zaiela datorren urtean, 2024. urteko Ikuskapeneko Plana gauzatzen denean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00178. Galdera, AUNako proiektu pilotuarekin sortutako kontratuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak AUNako proiektu pilotuarekin sortutako kontratuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00178):

• Zer kontratu mota sortu dira AUNAn kokatutako proiektu pilotuarekin (batez besteko iraupea, sektorea eta abar)?

Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguo Kontseilariaren erantzuna:

2022ko uztailaren eta 2023ko urriaren artean pertsonak kontratatu dira 52 lanpostu hauek betetzeko:

– 2022ko uztailaren zazpi lanpostu gehitu ziren:

- Zuzendaritza Teknikoa (0. paketea)
- Administrazioa (0. paketea)
- Koordinazioa (1. paketea)
- 2. paketea eusteko eta gainbegiratzeko lau pertsona

– 2022ko irailean gainerako lanpostuak gehitu ziren:

- 1. paketea:
- Bost gizarte langile
- Hamabi administrari
- 2. paketea:
- Hamasei enplegu kudeatzaile
- Hamabi gizarte kudeatzaile

2023ko maiatzean proiektuaren aurrekontua handitu zen (2023ko abuztutik aplikatu zena) eta 1. paketea zazpi lanpostu gehitu ziren (bi administrari eta bost harreragile).

Horiek guztiek aldi baterako kontratuak dituzte, 406 ereduaren arabera: iraunaldi mugatukoak, Next Generation funtsek finantzaturako programei lotuak, Suspertze, Eraldatze eta Erresiliencia Plana (SEEP) gauzatzekoak.

2023ko azaroaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte AUNA proiektuan bi lanpostu bakarrik mantentzen dira: Zuzendaritza Teknikoa eta Administrazioa (0. paketea).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko Azaroaren 28an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguo Kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00179. Galdera, AUNako proiektuaren baitan errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen zuzendutako proiektu pilotuko hautaprosesuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak AUNako proiektuaren baitan errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen zuzendutako proiektu pilotuko hautaprosesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00179):

- Nola hautatu dira, AUNA proiektuaren barruan, errenta bermatua jasotzen duten pertsonentzat departamentuak duen proiektu pilotuko 500 pertsonak?
- Zer gertatu da departamentuaren proiektu pilotuan parte hartu eta lan merkatuan sartzerik izan ez duten 309 pertsonekin?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariaren erantzuna:

Gizain Fundazioa, fundazio publikoa den aldeetik, foru sektore publiko instituzionaleko parte da (11/2009 Foru Legea, NFK-ko Administrazioari eta foru sektore publiko instituzionalari buruzkoa). 11/2009 Foru Legearen 67.3 artikulua arabera, "fundazio publikoak arloa dela-eta eskumena duen departamentuaren tutoretzapean egon dira, eta ordenamendu juridiko pribatuaren bidezko eraentza izanen dute, deusetan galarazi gabe foru lege honetan eta kontratazioari, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen eta kontratuen kontrolari buruz aplikatzeko den araudi administratiboan ezarritako berezitasunak".

GIZAIN Fundazioko langileen hautaketa prozesu eta barne igoera guztietan publikotasunaren, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak aplikatzen dira. Hala, Gizain Fundazioaren hitzarmen kolektiboaren 2.2 artiku-

luaren arabera, "lanpostuen deialdia eginen da erakunde publikoetako ordezte tasari eta enplegurako sarrerari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera. Langileak hautatzeko protokolo batean arautuko dira deialdien eta aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketa, barne sustapeneko sistemak, langileak hautatzeko organoak eta langileak hautatzearekin zerikusia duten beste gai guztiak. Protokoloa hitzarmen honen eranskin gisa onetsi da".

Zehazki, 2022ko otsailean onetsitako "Langileak hautatzeko protokoloan" arautzen da. Eta zerrenden kudeaketa 2022ko abenduan onetsi zen Protokoloaren arabera kontratatze arautzen da (Gizain Fundazioaren Enpresa Batzordearekin adostu dira protokolo guztiak).

AUNako langileak hautatzeko prozesuak hautapen protokolo horren arabera egin dira. AUNako langileak hautatzeko eta kontratatze prozesuetan, gainera, apirilaren 6ko 77/2022 Foru Aginduak onetsitako plan honetako neurriak aplikatu dira: Iruzzurren kontrako neurrien Plana, Eskubide Sozialetako Departamentuan, haren erakunde autonomoetan eta Gizarte Zerbitzu Publikoen Kudeaketarako Nafarroako Fundazioan (Gizain Fundazioa) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) kargura finantzatutako proiektuen kudeaketaren esparruan.

Horrela:

AUNako langileak hautatzeko deialdi guztiak aditzera eman dira Gizain Fundazioaren webgunean eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.

– Kontratatu beharreko profil guztien definizioan eta deialdien diseinuan parte hartu dute Gizain Fundazioak berak, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuko Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak.

– Prozesu guztiak prozedura objektibo batean oinarrituta garatu dira, azterketa, elkarrizketa eta merezimenduen (esperientzia eta prestakuntza) puntuaketa eginez.

– Deialdi guztiak eta egindako proben emaitzen eta kontratazio hurrenkeraren zerrenda guz-

tiak Gizain Fundazioaren webgunean argitaratuta daude:

- Enplegu eskaintza Zuzendaritza Teknikorako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/81-oferta-empleo-convocatoria-direccion-tecnica-proyecto-auna-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - Administrazio laguntzarako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/82-oferta-empleo-convocatoria-apoyo-administrativo-auna-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - 1. paketeko koordinatzaile izateko deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/83-oferta-empleo-convocatoria-coordinador-paquete-1-proyecto-auna-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - Laguntza teknikoaren arduradun izateko deialdia (enplegu arloa) - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/84-oferta-empleo-convocatoria-responsable-soporte-tecnico-proyecto-auna-ambito-empleo-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - Laguntza teknikoaren arduradun izateko deialdia (gizarte arloa) - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/85-oferta-empleo-convocatoria-responsable-soporte-tecnico-proyecto-auna-ambito-social-cerrada.html>

- Enplegu eskaintza - DSBEa/BGDSa kudeatzeko 5 gizarte langilerentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/103-oferta-empleo-convocatoria-5-trabajadoras-sociales-gestion-rgimv-proyecto-auna.html>

- Enplegu eskaintza - DSBEa/BGDSa kudeatzeko 12 administrarientzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/102-oferta-empleo-convocatoria-12-administrativas-gestion-rgimv-proyecto-auna.html>

- Enplegu eskaintza - Gizarte arloko hamabi kasu-kudeatzaileentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/104-oferta-empleo-convocatoria-12-gestoras-de-caso-ambito-social-proyecto-auna.html>

- Enplegu eskaintza - Enplegu arloko 16 kasu-kudeatzaileentzako deialdia - AUNA proiektua

<https://fundaciongizain.es/es/actualidad/9-bolsa-de-empleo/105-oferta-empleo-convocatoria-16-gestoras-de-caso-ambito-empleo-proyecto-auna.html>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00180. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 31ko agerraldian egindako adierazpenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 31ko agerraldian egindako adierazpenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00180). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Lehenengo puntuari lotuta, hau izan zen esaldia: "Bartzelonako politika publikoek porrot egin dute. Ekartzen ari diren goi kargu horiek inportatuta". Euren lana eta giza izaera deskalifikatu dela jo daiteke, pertsonak ez baitira merkantzia gisa inportatzen, eta pertsonak gauza bihurtzea deskalifikazio argia da, eta irainaren mugak urratzen ditu.

Deskalifikazioaren eta irainaren arteko loturari dagokionez, esan behar da adierazpen negatiboko bi modu direla, pertsona bat edota haren iritzia gutxiesteko edota iraintzeko erabiltzen direnak.

Deskalifikazioaren eta irainaren arteko zalan-tzarik gabeko lotura hau da: biak dira komunikazio forma negatiboa eta pertsona bat edota bere iritzia gutxiestea edota iraintzea dute helburu.

Biak dira kaltegarriak komunikaziorako eta pertsonen arteko harremanetarako, gatazkak eta gorrotoa sor baititzakete. Ez da egokia Nafarroako Parlamentuko batzordeetan erabiltzea.

Dena dela, batzordearen erantzunean adierazi ziren zuzendariaren barkamenak, argitaratuta dagoen grabazioan 02:04:46 momentuan ikus dai-

tekeenez. Eta berriz ere idatziz erantzuteko galderaren erantzun honetan.

Bigarren galderari dagokionez- Zer datutan oinarrituta dio UPNk ez zuela inoiz ahalbidetu Nafarroako gazteek etxebizitza eskuragarri eta publiko bat eskuratzea? Zer froga ditu esateko UPNk etxebizitza publikoaren espekulazioa ahalbidetu zuela eta oraindik ere horren ondorioak pairatzen ditugula?

2007 eta 2010 artean, Nafarroako UPNren (Union del Pueblo Navarro) gobernuaren agintaldian, lurzorua liberazioarekin eta hirigintza garapenarekin lotutako politikak ezarri ziren. Aldi horretan, etxebizitzaren eta hirigintza garapenaren politikek higiezinaren burbuilaren eragina izan zuten, eta azkenean gertatu zen bezala eztanda egitera bultzatu zuten.

Garrantzitsua da adieraztea une horretan Nafarroan hirigintza garapena eta etxebizitzaren eraikuntza nabarmen areagotzea sustatu zela. Horrek higiezinaren proiektuen kopuruak eta horiek garatzeko lurren erabilgarritasuna handitzea ekarri zuen.

Hala ere, hedapen hori zuzenean lotuta egon zen beranduago Espainiari eragin zion krisi ekonomiko eta finantzarioarekin. 2008an higiezinaren merkatuak izandako kolapsoak eta finantza krisiak eragin negatiboa izan zuten ekonomian, oro har, eta etxebizitzaren merkatuan, bereziki.

Laburbilduz, 2007-2010 aldian, Nafarroako UPNren gobernuak bat etorri ziren higiezinaren hazkunde esanguratsua sustatzen zuten lurzorua liberaziorako eta hirigintza garapenerako politikekin. Gerora, politika horiek Espainiak aurre egin behar izan zien arazo ekonomikoetan lagundu zuten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-23/PES-00200. Galdera, Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak Kataluniari zorra barkatuz gero Nafarroan izan daitekeen eragin ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Irene Royo Ortín andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2023ko azaroaren 9ko 3354 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Kataluniari zorra barkatzeak Nafarroan izan dezakeen eragin ekonomikoari buruzko azterlana egiten den jakiteko (11-23/PES-200). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak normalean bere jardueran ondorioak izan ditzakeen erabaki guztiak

aztertzen ditu. Ildo horretan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuak beren interes propioen defentsa zorrotzaren irizpideak jarraituz jardunen dute beti, eremu ekonomikoan definituak, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan lege gisa jasotakoaren arabera.

Defentsa hori horretarako egin diren kanaletatik egiten da eta horietan elkarrizketa beti izanen da etengabea eta arina.

Hala ere, kontseilari horrek ezin dio “Kataluniari zorra barkatzeak Nafarroan izan dezakeen eragin ekonomikoari buruzko azterlana egiten den jakiteko” galderari erantzun, aieruaren eremuan sartzen den galdera egiten duen parlamentarioak “posibleztat” jotzen duen gai bat aipatzen denez.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta Nafarroako Gobernuak ziurtatutako errealitateetan oinarrituta egiten dute lan eta ez informazio ofiziala ez duten hipotesi edota premisetan oinarrituta.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00201. Galdera, Tuterako Ospitaleko telebista-zerbitzu doakoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak Tuterako Ospitaleko telebista-zerbitzu doakoari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galde-ra 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Azaroaren 24a

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari María Irene Royo Ortín andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00201) jakiteko ea noiz jarriko duten Tuterako Ospitalean doako telebista zerbitzua, Iruñeko beste ospitaletan dagoen moduan. Hona hemen Nafarroako Gobernuo osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 26ko 452/2016 Ebazpenaren bidez jabari publikoko emakida esleitu zitzaion ISER SAU enpresari 2016rako Tuterako Reina Sofía Ospitaleko pazienteen geletan telebista zerbitzua jartzeko eta kudeatzeko.

Aipatutako emakideak logeletako telebista zerbitzua urtero, bi aldeak ados zeudela, 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzeko aukera jasotzen zuten. Zerbitzu hori urtero luzatzen joan da gaur egunera arte, eta emakida hurrengo abenduaren 31n bukatzen da.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera Osasun Depar-tamentuak bere gain hartuko du zerbitzu hori, ospi-taletik kudeatuko da eta doakoa izanen da Tute-ra-ko Reina Sofia Ospitaleko pazienteentzat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00202. Galdera, enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea eratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 24ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2023ko azaroaren 20ko 5081 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Enpresa Publikoetako Lehen Hitzarmen Kolektiboa Negoziatzeko Batzordea eratzeari buruz (1123/PES-202). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1. Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Enpresa Publikoetako Lehen Hitzarmen Kolektiboa Negoziatzeko Batzordea eratzeko?

Gaiaren konplexutasun juridikoa dela-eta, Nafarroako Gobernuak NEKParen bidez, txosten tekniko eta juridiko bat egin zuen aurtengo maiatzean, bi helbururekin: sektore publiko enpresariaren jasangarritasuna lantzea eta Langileen Legezko Ordezkaritzarekin hitz egiteko esparrurik egokiena zehaztea, besteak beste sozietate publikoetarako hitzarmen kolektibo bakarra sinatzea eta negoziazio mahaia eratzea bideragarria den aztertzeke.

Txosten horrek zenbait muga, zalantza eta gai juridiko planteatzen zituen, batez ere honako alderdi hauei buruzkoak:

- Negoziazio mahaiaren legezkotasuna
- Hitzarmenaren aplikagarritasuna Langileen Legezko Ordezkaritza ez duten sozietateetan
- Hitzarmenaren aplikagarritasuna sozietate publikoetan, Gobernu Akordio bidez ezarritako sozietate publiko berriak txertatzen diren denbora

epe batean (kasu honetan, Bidean modu garrantzitsuan)

Txosten hori egin aurretik, eta sindikatuek egindako eskaera bati erantzuna emateko, 2023ko martxoan proposamen juridiko bat aurkeztu zitzairen, NEKPak emandako jarraibideak baliozkotuko zituena. Proposamen horretan, objektiboki komunak diren eta NEKParen eskumenekoak diren gaitan sozietate publikoentzako eskubideen esparru egokia ezarri zen, baina gaur egun ez dago haien erantzunik.

2023ko abuztuan bidali zitzairen aurretik aipatutako txosten tekniko eta juridikoa sindikatuari. Sindikatuek ez dute horri buruz ezer esan.

2023ko urrian, NEKPak Bulegoen eta Langileen Hitzarmeneko Xedapen Gehigarrian jasotako bide bat irekitzeko proposamena egin zuten sindikatuari: "Hitzarmena indarrean dagoen bitartean aplikatzen zaien enpresen heterogeneotasunaren jakitun diren alderdiek talde bakoitzerako irizpide uniformeak aplikatzeko formula egokienak aztertuko dituzte".

Gaur egun, sindikatuak proposamena aztertzeko daude eta erantzun baten zain gaude.

2. Noizko aurreikusten da negoziazio mahaia eratzea?

Esparru egokia definitzeke dago, NEKPtik planteatutako gaiei Langileen Legezko Ordezkaritzak eman beharreko erantzunaren zain.

3. Zer parte hartze izaten ari da NEKPa edota Korporazioko enpresak Nafarroako bulego eta langileen hitzarmenaren negoziazioan?

Bulego eta Langileen Hitzarmena sektoreko hitzarmen bat da, eta haren negoziazioan Nafarroako Bulego eta Langeletako Enpresaburuen Elkar-teak ordezkatzeko du enpresaren alderdia. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren barruan dago elkarte hori, eta NEKPa elkarte horretako kide da.

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak informatzen dio NEKPari hitzarmenaren negoziazioaren eboluzioari buruz, ez du zuzenean esku hartzen.

4. Azkenean, Bulego eta Langileen Hitzarmen Kolektiboaren epea amaitzen bada akordiorik lortu gabe, nola eragingen die egoera horrek Bulego eta

Langelen Hitzarmen Kolektiboa aplikatzekoa zaien enpresa publikoetako langileei? Eta nola eragingo die etorkizuneko kontratazioei? Zer neurri hartuko ditu NEKPak?

Nafarroako Bulego eta Langelen Hitzarmenak behera egiten badu, Korporazioan sartuta dauden eta hitzarmen horren pean dauden sozietate publikoetako langileek bermatuta dituzte egungo lan baldintzak, eta horiek onuragarriagoak dira hitzarmen horretan jasotakoak baino. Horregatik,

sozietate publikoetako egungo eta etorkizuneko langileen lan baldintzak ez dira inola ere Langileen Estatutuaren mende egongo.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00204. Galdera, ehizari buruzko lege-proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak ehizari buruzko lege-proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 24ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-23/PES-00204 galdera egin du, Ehizaren Lege Proiektuari buruz. Hona Landa Garapeneko, eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ehiza kudeaketaren arloko araudi berria egiteari buruz darabilen lan proiektzioak esan nahi du 2024. urteko

lehen seihilekoan lehenengo zirriborro bat eginen dela, eta, ondoren, zuzenean inplikaturik dauden eragileekin eztabaidatuko dela.

Aberasteko fase horren ondoren, dokumentua eguneratu eginen da, eta horrek dakartzan administrazio fase guztiekin izapidetuko da, bai eta nahitaezko txostenekin ere.

Fase hori bukatzean parlamentuan izapidetuko da. Gogoratu behar da arau konplexua dela, askotariko ondorioak dituelako, eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren helburua ahalik eta adostasun handiena lortzea dela, eta alderdi hori epeak baino garrantzitsuagoa dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena